

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXI    SAN SEBASTIÁN 15 DE OCTUBRE DE 1914    N.º 1114



ANTONIO URBIZTONDO TA EGIA

# ANTONIO URBIZTONDO TA EGIA

**D**ONOSTIARRA zan, uri ontan jayua 1803 <sup>garren</sup> urteko Ilbeltza-ren 17-an, ta juan dan gizaldian naikua gora bera ikusi zuben.

Gaztetandikan gudaritarako zuben burutaziyo bizi ta berua, ta gualari izantzan azkar ta trebia, bulartsu ta azkarra.

Gudalari nai zubenentzat etziran urte charrak juan dan gizaldiko egunak. Erriyentzako baño obiak. Bat zala ta bestia zala, beti guda ta jararretan igaro bai zan denbora guziya.

Amaika urte zituben, ta ordurako aita illa zuben, erregearen jauregi-ko jarraile gazte sartu zanian. Ala zegola zaletu zan bere aide Egia martitz burua-ren alabatzaz, eta bere ondoren juan zan lenbizi Granada-ra ta gero Oñati-ra.

Azkeneko uri ontan zegola bizkaitar batzubek agintarien kalte alcha ziran ta Urbiztondo buru jarririk asaldu zuben oraindik gaztia izan arren gualari artakua izateko jayua zala.

Gaizki atera zan lenbiziko gertaera ontan, bada arrapaturik arerioak iltzeko zoriyan jarri zuten, baño ikusirik bere gaztetasuna, barkatu ziyoten.

Gero, bein Karlos bostgarrenaren alde, bestian Isabel erregiñaren, batzubetan España-ko lurretan, urrengoan urrutietako ugarteetan, beti gualari, beti azkar, beti pizkor, beti bulartsu, ori izantzan Urbiztondo, martitz-buru otz aundikua izatera irichi zana.

Bere egipenak gogoangarriak dira, Kondairak asaltzen ditu bere orri omentsuenetan, erregiñak saritu zituben, berari ta bere ondorenguai *Marqués de la Solana* izen apaingarria emanaz.

Madrid-en il zan Donostiyan jayo zan gualari bulartsua.